

## **INFORMAZIOA:**

Anjel Figueroa preso politikoak Txagorritxuko ospitalean ingresatuta jarraitzen du.

Pasa den larunbat eguerdian krisialdi bat izan zuen eta gauerdian beste bat larriagoa. Honen ondorioz, Txagorritxuko ospitalean ingresatu zuten berriro pasa den igandean.

Orain Txagorritxun dagoelarik, mediquen esanetan komenigarria izango luke bertan denboraldi bat egitea, ospitalean kartzelan ez duen lasaitasuna izaten baitu, kartzelako bizimodua eta ordutegia guztiz desegokiak baitira holako gaixotasuna duen pertsonarentzat.

Dena dela, ezin dugu esan ospitalean dagoenean dena ondo doanik. Izan ere, atzo bere familiarrak bera ikusi gabe bueltatu ziren aurretik bisita egitera joango zirela hitzartuta eduki arren.

### **ANGEL FIGUEROA FERNANDEZ**



**Getxo. 36 urte. Langraitzen egun.**

**Gaixotasunaren diagnostia:** Haurtzaroan izandako sukar gaitz batek eragindako **Epilepsia tenporala, eskuinaldeko Esklerosi mesialarekin.**

Anjelen kasua aipatu nahi badugu, espetxearen eragin zuzenaren kasu batetaz ari garela esan genezake. Izan ere, bere gaixotasuna eta berau inguratzen duen guztia espetxeari bereziki lotuta agertzen zaigu.

Algortarrak 36 urte ditu egun, eta horietatik 13 espetxean daramatza, Espainiako "justiziak" 30 urteko espetxealdira zigortu duelarik. Eta denok dakigu ze baldintzetan betetzen dituzten euskal preso politikoek Entzutegi Nazionalak ezarritako zigorrak: espetxe araudiak onartzen dituen baldintza gogor eta murriztuenetan: etxetik urrun, gradurik zorrotzenez, isolamendu baldintzetan askotan, zigor eta tentsionamendu politika baten pean, modulu eta espetxe aldaketa etengabeak.. Anjel ere mugitu izan dute behin eta berriz, Kolektiboari ezartzen dioten neurri berberean harrapatua: Madrileko espetxeak, Dueñas, Kordoba, Langraitz...

Baina Anjelen kasuan bere osasun egoera da bereziki aurkezpen hau ahalbidetzen duena. Izan ere, Anjelek orain dela 20 urte gutxienez duela diagnostikatua egungo gaixotasuna: Epilepsia tenporala. Hau da, epilepsia mota larrienetako bat, bortitzenetako bat; eta honen ondorioak honako hauek izan daitezke: konbultsioak, portaera aldaketak eta delirioak, besteak beste. Gainera, atakea ematen dion bakoizean konortea galtzen du eta

ausentzia luzeak izan ohi ditu. Kontua da, gaixotasunaren arriskua hain nabarmena izanik ere Anjel ez dagoela gaur egun baldintza egokienetan gaitz honi aurre egiteko; ezta gutxiago ere.

Izan ere, nahiz eta 2006ko ekainean ebakuntza egin izan, bere ondorengo egoerak ez du hobera egin, larriagotu baino. Eta hau lehen aipatutako arrazoiari dagokio, hots, bere espetxealdiaren eragin zuzenari. Txagorritxuko neurologoaren arabera, bere gaitzari aurre egiteko ezinbesteko baldintzak honako hauek dira: medikazio zorrotza; ordutegi finkoak, aldaketarik gabe; lo ongi egitea, estresik edo tentsio unerik ez. Hau da, euskal preso politikoei ukatzen zaizkien egoerak. Izan ere ezaguna da espetxeetako osasun asistentzia maila, ezaguna ere espetxe zein modulu etengabeko aldaketen politika, ezaguna ze tentsio izugarria aplikatzen zaien euskal preso politikoei.

Goazen Anjelen kasura. Anjelek ere zigor neurri berberak jasan behar izaten ditu espetxean dagoenetik. Lehen aipatu bezala, espetxe batetik bestera ibili izan dute; eta ezagunak dira traslado luze hauetan bizi diren egoerak: bidai luzeak, astebete edo 10 egunera luzatu daitezkeenak, funtzionario edo guardia zibilen aldiroko eraso eta jipoiak (Anjelen Kordobatik Langraitzerako azken trasladoa, kasu), transitoan pasa behar diren espetxeetako ziegen egoera higuinagarria, isolamendu egoera latzak... Eta, jakina, egoera honetan guztiz ezinezkoa suertatzen da ordutegi finko bat mantentzea, lasai lo egin eta atsedean hartzea edota tentsio eta estresik gabeko egoera batean bizitzea. Hau da, Anjelentzat desegokiena den egoera larria.

Hau guztia ezaguna da eta salatu izan da behin eta berriz, baina alferrikako saioa izan da orain arte. Anjelen atakeak eta honen ondoriozko egoerak behin eta berriz errepikatzen dira, eta egoerari aurre egin ezinik ikusten du bere burua. Bere baldintzapeko askatasuna ere eskatu izan da, osasun arrazoiengatik, eta hau ere ukatu diote, gaitz mota hau espetxean "jasangarria" dela aipatuz. Baina egoerak bestelako datuak eskaintzen ditu: Anjelen krisialdiak behin eta berriz errepikatzen dira, Anjel behin eta berriz ingresatu behar izaten dute Txagorritxun...Egoerak eta gertakizunak errepikatzen dira, baina neurririk ez dira hartzen bere osasun egoera aldatzeko.

## **ANJEL EN KRISIALDIEN KRONOLOGIA**

### **2005 URTEA**

**Maiatzak 3.-** Bere osasun egoera dela-eta, Gurutzetako Ospitaleko kontsultara eramaten dute. Bertako neurologoak esklerosi mesialak ebakuntza-kirurgikoa arazorik gabe onartzen duela kontuan hartuta, Angelen tratamendu kirurgikoaren posibilitatea aipatzen du. Aurretik, Epilepsia Unitatean estudio bat egiten zaio.

Urte amaieran, Kordobara jaisten dute berriro, nahiz eta urtarrilaren 17rako kontsulta bat izan Gurutzetan. Kordobatik Valdemorora eramaten dute, Entzutegi Nazionalean deklaratzeko.

## 2006 URTEA

**Urtarrilak 27.-** Langraitzera eramaten dute berriro.

**Otsailak 13.-** Guruzetako Ospitalean ingresatzen dute, frogak egiteko. Bi ertzain bere gelan dituela eta gauez argia piztuta uzten dutela kexatzen da. Familiak arazo eta trabak ditu Anjelekin egoteko.

**Maiatzak 9.-** Guruzetako Ospitalean ingresatzen dute eta arrisku handiko ebakuntza-kirurgikoa egiten diote: T2, T3, T4 amigdalektomia eta 3,5 mm.ko hipokanpektomia.

**Maiatzak 18.-** Alta ematen diote eta Langraitzera itzultzen dute, nahiz eta ebakuntzaren susperraldirako zein bere gaitz eta egoerarentzako espetxea tokirik txarrena izan.

**Uztailak 26 eta 27.-** Krisialdiak errepikatzen dira eta Txagorritxuko Ospitalean ingresatu behar izaten dute. Ondoren Santiago Ospitalera eramaten dute.

## 2007 URTEA

**Otsailak 25.-** Krisialdi orokortua, bera kontziente ez bada ere: ziega nahastua ikusten du esnatzerakoan eta oina, belauna eta kopeta kolpatuak ditu.

**Martxoak 1.-** Kontsulta Guruzetako Ospitalean.

**Martxoak 30.-** Krisialdi berria, alde psikologikotik eragiten diona. Txagorritxutik Santiago Ospitaleko Larrialdietako kontsultara eramaten dute.

**Apirilak 12.-** 92. artikulua aplikazioa eskatzen dio Entzutegi Nazionalako Espetxe Zaintzarako Epaitegi Zentralari.

**Apirilak 13.-** Maiatza eta ekainean errebisio bat izan arren, Cordobako espetxera trasladatzen dute.

**Apirilak 20:** Kordobako espetxera iristen da Soria, Valentzia, Alacant, Granada eta Sebillako espetxeetan gaua egin ondoren. Kordoban erizaindegian sartzen dute, 3 preso gaixoak dauden ziega batean.

**Maiatzak 26.-** Langraitzera trasladatzen dute berriro. Irteeran guardia zibilek kolpatzen omen dute eta konortea galtzen omen du.

**Ekainak 2.-** Krisialdi berria, alde psikologikotik eragiten diona. Txagorritxun ingresatu ondoren Santiagora eramaten dute eta Txagorritxura itzultzen dute berriro.

**Ekainak 6.-** 48 orduko errebisio batera eramaten dute Gurutzetara.

**Ekainak 25.-** Ziegako kideek bi krisialdi izan dituela esaten diote.

**Uztailak 8-9.-** Krisialdiak izan ditu. Txagorritxun ingresatzen dute.

**Uztailak 23.-** Krisialdiak berriro. Ziegakideek loa eragozten diotela kexatzen da; ziegan bakarrik egotea eskatzen dio sendagileari. Ukatzen diote eta gose greba bati hasiera ematen dio.

**Uztailak 26.-** Gose greba uzten du. Kide baten ziegan sartzen dute eta Irailean Gurutzetan ingresatuko dutela aipatzen du neurologoak.

**Uztailak 31.-** Entzutegi Nazionaleko EZEZak 92. artikulua eskara ukatzen dio. Erreformako helegitea egingo du.

**Abuztuak 17.-** Krisialdi berriak. 22ra arte ingresatzen dute Txagorritxun.

**Abuztuak 31.-** Krisialdi berriak 31tik 1erako gauean.

**Irailak 17/18:** Krisialdia gauez; 18an, goizean, konortea galtzen du sendagilearekin dagoenean. Bera ez da oroitzen, baina bertan zeudenek horrela esan diote.

**Irailak 23.-** Txarto sentitzen omen da, botaka ibili omen da. Txagorritxura eraman eta "Pimperan" sartzen omen diote zainean. Joaterakoan anbulantzia eraman bazuten ere, itzuleran polizi-furgoian eramaten dute, atzeko aldetik esposatua.

**Urriak 9.-** Krisialdi berriak gau erdian: 12ak inguru bat eta 3ak aldera bigarrena. Bera ez da oroitzen, baina ziegako kideak kontatzen dio.

**Urriak 22.-** Gurutzetan ingresatzen dute. Bertan bi krisialdi bortitz ditu lehenbiziko egunean. Ondoren egindako frogak ondorioztatzen dute garunaren ezker aldean gaitzaren beste fokoa bat agertu dela. Ondorioz, ezin da ebakuntzarik egin eta gaixotasuna bizi osorako, sendaezina duela baieztatzen da.

**Azaroak 8:** Amak deitzen du kontatuz Anjelek Córdoba daramatela esan diola. Goizean lehen orduan gauzak prestatzeko esan omen diote. Gauzak horrela, Basterretxea neurologoak Gurutzetako neurologoarekin hitz egin du, gertatutakoaz ohartaraziz. Honek espetxeko sendagileak berari deitzeko eskatu du, egoera bideratzeko. Gure sendagileak (Esti) Langraitzeko espetxera deitu du, Garamendiri deitzeko mandatua emateko. Bertako sendagileak mandatua hartu omen du, deituko diolakoan. Arratsaldean, berriz, amak espetxeko gizarte laguntzaileari deitu dio, eta honek baieztatu dio espetxetik atera dutela dagoeneko

**Azaroak 14:** Kordobara iritsi da. Bidaian 3 atake izan omen ditu, horietako bat furgonetan: guardia zibilak artatu omen du eta horrela kontatu omen diote.

**Azaroak 19:** Falta prozeduraren diligentzietara eramaten dute.

**Azaroak 29:** Langraitzera itzultzen dute. Ingresoan arazoak ditu funtzionarioekin: flexoa kendu nahi diote eta tentsio unea sortzen da. Konortea galtzen du eta atzetik lotua esnatzen da. Funtzionarioa "iraindu" duela-eta, zigortzen dute.

---

### **Abenduak 29**

---

Beste krisialdi bat izan du. Ziegan zegoelarik bi krisi izan ditu eta gero beste bat gauean . Txagorritxura eraman dute.

---

### **ASKATASUNAREN IRAKURKETA:**

Zapateroren gobernuak euskal preso politikoak bahitu politiko bezala erabiltzen dituela salatu nahi du Askatasunak. Une hauetan 12 euskal preso gaixotasun larriekin espainiar sarraski espetxeetan aurkitzen dira, behin eta berriz baldintzapeko askatasuna ukatu zaielarik. Minbizia, buruko gaixotasunak, artrosi orokortua, epilepsia atakeak etab. Hau da espainiar espetxeetan euskal presoek bizi duten errealitatea.

Espetxe politikak euskal presoak egoerarik bortitzenetan bizitzera kondenatuak daude, eta presoak bisitatzera doazen senide eta lagunek bizitza jokatzeko astero errepideetan. Presoak euskal herritik ehundaka kilometrotara urrunduak daude, eta gero eta gehiago dira espainiar justiziak ezarritako kondena bete arren espetxean jarraitzen dutenak.

Askatasunatik herritarrei dei egin nahi diegu, herriz herri presoen eskubideen aldeko dinamikak indartu ditzagun.